

Astelehena Otoitza

Al Ritmo
de Congo



Belarriak beti adi-adi edukitzea

gainerakoek minez oihukatzean
eta haien laguntza-eskea entzutea

Elkartasuna da

Begirada beti adi-adi edukitzea
eta begiak itsasorantz begira jartzea,
arriskuan dagoen naufragoren baten bila...
Elkartasuna da

Han-hemengo anaiaren sufrimendua

norberarena balitz bezala sentitzea
Txiroen estutasuna norberarena egitea...
Elkartasuna da

Xumeen ahotsa izatea,
bidegabekeria eta maltzurkeria agerian jartzea,
bidegabea eta maltzurra salatzea...
Elkartasuna da

Itxaropenez, maitasunez eta bakez

betetako mezuaren eraginpean egotea,
anaiaren eskua estutzea ere...
Elkartasuna da

Maitasunagatik bizia ere ematea
adiskidetasunaren adierazgarri handiena da:
Jesukristorekin bizitzea eta hiltzea da
Elkartasuna da



**"Senegaleko
Altxorra" esker
on- bideoa**

